

MENDI ELKARTEAK ERAKARGARRIAGOAK EGIN DITZAGUN

Esan ohi da zuhaitzek ez dutela basoa ikusten uzten. Eta egia da gero eta jende gehiago ikusten dela ohiko mendietan; gero eta jende gehiago dagoela federatuta; gero eta gertuko mendi elkarte gehiago ari direla euren urteurrena ospatzen. Esandakoaren arabera, ondorioztatu daiteke mendizaletasunak urrezko garaia bizi duela berriro. Baina nola bizi dute adierazitako ustezko oparotasunaren irudi hori mendi elkartetan?

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Joseba Iparragirre, Jabi Etxaniz
eta Iñigo Ramirez de Okariz

Arrola mendi elkarteko kideak, mendizale amorratuak, Euskal Herriko natura eta kultura ondarearekin maiteminduak eta herriko proiektu kolektiboen sustatzaileak.



ARROLA MENDI ELKARTEA

ARROLA (Antzuola, Debagoiena, Gipuzkoa) mendizaletasunaren inguruan herriko komunitatea elkartzeko gune moduan sortu zen 1972an. Harrez geroztik, mendizaletasuna ikuspegi zabala ari da hartzen herritarren artean: esate baterako, gero eta gehiago dira mendi lasterketetan dihardutenak, mendi-ko bizikletan dabiltzanak, erreka jaitsieretan, eskaladan edo aire zabalean beste kirol mota batzuk esperimentatzen, edota lehiatzen dabiltzanak. Gainera, honako hau ez da ahaztu behar: gero eta handiagoak dira kirola bakarka egiteko aukerak, eta horrek jende askok elkarteekiko duen atxikimendua apaltzea dakar; edo, beste era batera esanda, mendi-elkarteen beharrik ez izatea. Bada, hori gogoan izanda, nola egokitu genezake mendian taldean ibiltzea, antzinako oinarritzko filosofia mantenduz, baina egoera berrietara ekarritz?

Kezka horrek bultzatu gintuen lerrootako natura parkeen proiektua diseinatzera, aldarri argi batekin: zerbaitekiko atxikimendua izateak, zerbaiten parte sentitzeak, benetan asetzen du norbanakoa, eta hori proiektu kolektibo baten barne sentitzea da. Egun, gainera, proiektu kolektiboak eta harreman sare trinkoak gero eta ahulagoak izan daitezkeen uneotan, Arrolak antolatutakoaren moduko proiektuak gero eta beharrezkoagoak izan daitezkeela uste dugu.

DIAGNOSTIKO PARTEKATUA

50 urteren ondoren, bada galdera bat: zer egin genezake mendi elkarteak erakargarriagoa eta atseginagoa bihurtzeko, gogoan izanik oraindik ere elkarteak Antzuolako herritarrei zerbitzu bat eskaintzen jarraitu nahi diela?



Bardeak natura parkea

Mendizaletasuna bere osotasunean hartuta, natura eta kultur ondarearekin lotutako konpromisoarekin jarraitu nahi dugu aurrera, gure udalerritik hasi eta munduko edozein muturretaraino zabalduz; alegia, mendian ibili nahi dugu, baina han eta hemen bizi direnak ezagutuz, sentituz, maitatuz, zainduz eta hori guztia ahalik eta egokien transmitituz belaunaldi berriei. Eta badirudi ez gaudela geu bakarrik kezkatuta gai honekin. 2022an mahai inguru bat egin genuen Debagoieneko mendi elkarteekin, eta diagnostikoa partekatua da: gero eta zailagoa da jendea mendi elkarteek antolatutako ekintzetara erakartzea, eta, era berean, gero eta nekezagoa da mendi elkarteetan parte-hartzera animatzea. Kezka horrekin hasi ginen bueltaka 2023ko udaberrian, Arrola elkarteak egoera berrira egokitze behar zuen formularen bila.

Asteburua Holtzarteko arroilan, Larrainen (Zuberoa)





Urbasa natura parkea

Zer egin genezake mendi
elkartea erakargarriagoa eta
atseginagoa bihurtzeko?

GR 289 IBILBIDEA: HARTZAREN URRATSAK

2023ko udaberrian iritsi zen formula hori martxan jartzeko koiuntura egokia, Hartzaren Urratsak izeneko mendi ibilaldiaren aurkezpenean. Debagoiena eskualdeari itzulia ematen dion 97 kilometroko GR 289 ibilbidea da, eta Debagoieneko Mankomunitateak sustatutako Puntaik Punta jaialdian aurkeztu zuten, apirilaren 23an. Hain zuzen, egun horretan bertan egin zen ibilaldiko lehendabiziko etapa ere: Oñatitik Arrola gainera igo, Antzuolara jaitsi eta Bergaran amaitu.

Talde polita elkartu ginen lehen etapa hartan, baina ez zen konpromisorik hartu gainontzekoak egiteko. Dena den, ibilbidean sortutako harremanen eta ahoz ahokoaren ondorioz, hainbat parte-hartzailek (Herminia, Idoia, Eva, Mercedes, Maria, Ruben, Joseba, Jabi eta Iñigo, GR 289 taldeztat izendatua gerora) ibilbidearen gainontzeko etapak egiteko konpromisoa hartzea erabaki zuten.

GR 289 (MENDI ETAPAK)		
ETAPA	LUZERA (KM)	WIKILOC
Oñati Bergara	24	Wikiloc Ruta GR 289: 1. ETAPA: OÑATI-BERGARA
Bergara Arrasate	21	Wikiloc Ruta GR 289: 2. ETAPA: BERGARA-ARRASATE
Arrasate Gatzaga	21	Wikiloc Ruta GR 289: 3. ETAPA: ARRASATE-GATZAGA
Gatzaga Araotz	19	Wikiloc Ruta GR 289: 4. ETAPA: GATZAGA-ARAOTZ
Araotz Oñati	18	Wikiloc Ruta GR 289: 5. ETAPA: ARAOTZ-OÑATI

Egileek egina.

GR 289 TALDEA ETA EUSKAL
HERRIKO NATURA PARKEAK

Parte-hartze aktiboak eragiten du pertenezkia sentimendua, talde bateko parte izatea. Herritar bat zerbaitekin identifikatzen hasten denean, orduan sentitzen omen du bere. Baina gaur egun, gero eta zailagoa da jendea berrakibatzea, norbanakoaren baitan eta komunitatetik gero eta urrunago bizi baikara. Komunitate sen hori aktibatzeko, tokian tokiko irteerak sustatu behar dira, baina hori ahalbidetzeko ezinbestekoa da taldea sortzea eta saretzea, eta mendia ulertzeko eta sentitzeko talde batek lidergoa izatea.

Bada, GR 289 taldean hitz eginez, eta batera zerbait egiteko premia partekatu ondoren, Euskal Herriko natura parkeak ezagutzeko proiektu berria aurkeztu genion Antzuolako herririari, 2023ko abenduan.

HEGO EUSKAL HERRIKO NATURA PARKEAK	
NATURA PARKEA	AZALERA
VALDEREJO (Araba)	3.496
IZKI (Araba)	9.081
GORBEIA (Bizkaia)	20.016
URKIOLA (Bizkaia)	5.958,3
ARMAÑON (Bizkaia)	3.519
PAGOETA (Gipuzkoa)	2.860
AIKO HARRIA (Gipuzkoa)	6.913
ARALAR (Gipuzkoa)	10.956
ARATZ-AIZKORRI (Gipuzkoa)	19.400
BARDEAK (Nafarroa)	41.845
BERTIZKO JAURERRIA (Nafarroa)	2.040
URBASA-ANDIA (Nafarroa)	21.408

Iturria: Parke Naturalak. Euskadiko Turismo Ataria. Turismoa Euskadi web orria. Iturria: Nafarroako Naturgune Babestuak. Naturgune babestuak. Navarra.es web orria.

Hego Euskal Herriko inguruneak parke naturaltzat izendatzen dira, baina Ipar Euskal Herrikoek beste izendapen bat dute. Pirinio Atlantikoetako prefekturak zenbait toki ditu sailkatuta Europar Batasuneko Natura 2000 sarearen barruan, eta horietako batzuk Euskal Herrian daude.

EUROPAR BATASUNEKO NATURA 2000	
NAFARROA BEHERA	• Garaziko mendiak • Aldudeko mendiak
LAPURDI	• Mondarrain eta Artzamendi • Larrun • Xoldokogaina • Txingudiko badia
ZUBEROA	• Basabürüko mendiak • Arbailako basoak • Iratiko basoa

Iturria: Euskal Herriko naturagune babestuak. Wikipedia, entziklopedia askea.

Hego Euskal Herriko natura parkeetan oinarritu da, hala ere, gure proiektua. Horrenbestez, badira aukerak, hala nahi izanez gero, aurrera jarraitzeko eta, noski, aipagai dugun proiektua Ipar Euskal Herrira zabaltzeko.

PROIEKTUAREN XEHETASUNAK

Proiektuaren koordinazio taldea osatu ondoren, Arrola mendiko elkartearen zuzendaritza taldeari gure asmoen berri jakinaraztea izan zen lehendabiziko zeregina: proiektuarekin aurrera ekitera animatu gintuzten taldekideek, eta gainera,

konpromisoa hartu zuten garraiobidearen kudeaketa eta horrek zuen gastuaren zati bat bere gain hartzeko.

Mendian ibiltzeko gutxieneko ohitura duen edonori zabalik egotea genuen helburutzat, izan gazte edo heldu, hasierako asmozat baikenuen belaunaldien arteko mendi irteerak izatea. Aldi berean, bailarako mendizaleei ere parte-hartzeko aukera eman nahi genien, jakinda jatorrizko taldean (GR 289) inguruko herrietako jendea (Bergara eta Arrasate) zegoela, eta, hala, eskualde mailako proiektu bat izatea neurri batean.

Kirola, natura eta kultura uztartu asmo dituzte proiektuak, eta, horrenbestez, herritarrei ibilbide didaktikoak eskaintzea du helburu

Urte osoko egutegia diseinatu genuen, erreferentziatzat hila-betea behin irteera bat egiteko asmoz. Urrutien zeuden ibilbideak egiteko (Holtzarte, Zuberoan eta Irunberri, Nafarroan) osatu edo aterpeetara joateko antolatu ginen, asteburu osokoak izango zirela aurreikusita. Garraiotzat autobusa erabili genuen, jasangarriena eta ekonomikoa delakoan, eta ibilbide linealak egiteko aukera ematen duelakoan. Irteerak egin ahala, gainera, ohartu gara elkar ezagutza eta elkarrekiko komunikazioa sustatzeko bitartekari egokia dela garraiobide hau.

Kirola, natura eta kultura uztartu asmo zituzten proiektuak, eta, horrenbestez, ibilbide didaktikoak izatea ezarri genuen helburutzat, aldeztu aurretik egingo zen irteeraren informazioa herritarrei eskainiz.

Urbasako natura parkera egindako irteera ere arrakastatsua izan zen





Valderejo natura parkea

Komunikazioari dagokionez, Udalak hilero kaleratzen duen agenda erabili zen proiektua herritarrei zabaltzeko. Horrez gain, baliagarri izan dira Goiena Komunikazio Taldeak eta gertuko egunkariak euren herriko kroniketan eskainitako informazioa, paperezko euskarrian zein webguneetan eskainitakoa.

2023ko abenduaren 14an egin zen natura parkeen aurkezpena herriko kultur etxean. Taldetxo bat elkartu ginen, eta, giza baliabideak ziurtatuta, irteerak antolatzeko eta komunikatzeko Whatsapp talde bat sortu zen parte-hartzaileekin.

IRTEERAK

Natura parke bat bere osotasunean ezagutzeko ibilbide asko egin behar dira, eta ohiko irteerak egiteko errazenetara jotzeko ohitura izan ohi da. Guk izan dugun asmoa, hala ere, beste bat izan da: natura parkearen ezohiko eremu bat ezagutzea. Hala, ibilbide ofizialetatik kanpo ibili gara sarritan, horrek aurrelana eskatu digun arren: ibilbideak aurretik ezagutzea, atsedendia eta otorduak non egin zehaztea, edota bukaerako kafea edo garagardoa hartzeko dauden ostatuen berri jasotzea. Azken finean, ibilbidea ahalik eta erakargarriena bihurtzen saiatu gara, kontuan hartuta mendizale asko eta anitzak etor zitezkeela antolatutako irteeretara.

Edozein ezustekoren aurrean –esaterako, eguraldi txarra –, horrenbestez, aukera ezberdinak genituen planifikatuta, horrela arrisku egoerak saihestuz.

Bada, urtebete pasatxoren ondoren, planifikatutako irteerak egin genituen. Honako hauek dira datuetako batzuk: hamazortzi kilometro inguru egiten genituen irteerako batzuek beste, sei ordukoak eta mila metro inguruko desnibelekoak.

ONDORIOAK: INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK

2025eko otsailean bukatu genituen alde aurretik planifikatutako hamahiru irteerak, eta esku artean ditugu datuak, hona hemen:

Hasteko, parte-hartzea da aipatu beharreko puntuetako bat. Izki natura parkera egin genuen irteera izan zen jendetsuena –orduko hartan, 31 mendizale batu ginen–, eta apalea berriz Aratzera eginikoa –zortzi lagun–, eguraldi makurra eta elurra tarteko. Hala, irteeretan batzuek beste 21 mendizalek hartu dute parte, proiektuak guztira natura parke batetik bestera 273 mendizale mugitu dituen arren.

Irteerek, horrenbestez, atxikimendu maila ezberdina izan dute, baina talde sendoa batzea erdietsi da, eta dozena bat mendizalaren fideltasuna lortu da. Horrez gain, datu esanguratsua da parte-hartzaileen generoa ere: hamar parte-hartzailetatik zazpi baino gehiago –%71 zehazki-emakumezkoak izan baitira.

Datu interesgarria izan daiteke mendizaleen adina ere. Ohartu gara proiektua garatu ahala desagertu egin direla gazteagoak, agian euren espektatibak (irteerak, erritmoak, jendea...) ez direlako bete, eta iraun dutenak, horrenbestez, adinez gorago daudenak eta jubilatutakoak izan dira. Gauza bera esan genezake herritarrengandik lortutako atxikimenduaz ere: herritarrek gutxitu egin dira proiektuak aurrera egin ahala, eta gehitu, berriz, herritik kanpokoak, bailarakoak.

Irteera hauetan guztietan, zorionez, eguraldi ederra izan dugu, eta ez dugu aparteko ezustekorik izan istripuei dagokionez, ez mendi ibilaldietan ezta garraioen joan-etorrian ere.

Herritarren arteko harremanaz gain, bailarako beste herritar batzuekin harremanak hasteko bitartekari ona ere izan da natura parkeen proiektua

JENDEAREN ESANAK

Irteera bakoitzean saiatu gara jendeak bere ahozko iritzia eman zezan, baina idatziz adierazteko aukera ere eman dugu, Whatsapp bidez. Iritzi asko antzekoak direla ohartu gara, oso positiboak gehienak. Hona hemen haietako batzuk:

- Eskerrik asko antzuolarrak ez garenoi emandako aukeragatik. Ia aurrerantzean ere elkartzerik dugun.
- Taldea hain aberatsa ezagutzea itzela izan da, eta plazer bat Euskal Herriko ingurune bikainez disfrutatzea.
- Konpainia ezin hobe eta lagunak egiteko aukera zabaltea ederra izan da.
- Toki ederrak eta jendearekin egun pasa ederrak.
- Taldeari eskerrik asko zuen adiskidetasunagatik.
- Adiskide berriak egiteko aukera ederra.
- Ia elkarrekin berriro ikusteko aukera dugun.
- Nire oroimenean geratuko dira egindako irteerak.
- “Infinito” eskertzen ditut emandako aukerak.

Badirudi proiektuaren asetze maila egokia lortu izanak komunitate berri bat osatzeko aukera erdietsi duela; elkar ezagutzeko eta adiskide berriak egiten joatekoa ere bai. Are gehiago, herritarren arteko harremanaz gain, bailarako beste herritar batzuekin harremanak hasteko bitartekari ona ere izan da natura parkeen proiektua.

Jendea gogoz gelditu dela dirudi, beste proiektu baten zain, berriro denok elkarrekin jarraitzeko, edo etorri berriei ongietorria egiteko. Gu geu, antolatzaileok, berriz ari gara kontuari buelta batzuk ematen egoerari, proiektu berria lantzeko asmoz.



Urkiola natura parkea

INFORMAZIO GEHIAGO

<https://www.youtube.com/watch?v=722r30-3BFk>
<https://goiena.eus/antzuola/1739974685764-hamahiru-natura-parke-ezagututa>

NATURA PARKEAK/TRACKAK			
NATURA PARKEA	DATA	MENDIZALE	WIKILOC
URKIOLA	24/01/20	28	Wikiloc Ruta URKIOLA NATURA PARKEA (I) (PR BI 85)
IZKI	24/03/16	31	Wikiloc Ruta IZKIZ NATURA PARKEA: POSTARIEN ETA TXARABITANA BIDEZORRAK
PAGOETA	24/04/20	24	Wikiloc Ruta PAGOETAKO NATURA PARKEA: ITURRARAN-PAGOETA-ORIO.
ERREGE BARDEAK	24/05/11	25	Wikiloc Ruta CASTILDETIERRA-PEÑAFLORE-EGUARRAS-CASTILDETIERRA
BASABURUA	24/06(08-09)	14	Wikiloc Ruta LOGIBAR-HOLTZARTE-OLHADUBI-LOGIBAR
AIKO HARRIA	24/07/13	23	Wikiloc RutaSORONDO-BIANDITZ-ARRITXULEGI-ELURRETXE
URBASA-ANDIA	24/09/14	30	Wikiloc Ruta URBASA-SANTA MARINA-SAN ADRIAN-LIZARRAGA
VALDEREJO	24/09/28	20	Wikiloc Ruta VALDEREJO NATURA PARKEA : LALASTRA
ARALAR	24/10/12	20	Wikiloc Ruta ARALAR NATURA PARKEA: AMEZKETA-LIZARRUSTI
BERTIZ	24/11/09	20	Wikiloc Ruta BERTIZ NATURA PARKEA: BERTIZ-ETXALAR.
ARATZ-AIZKORRI	24/12/14	8	Wikiloc Ruta ARAIA-ZIRAUNTZA-ARATZ-ITURRIOTZ-ARAIA
ARMAÑON	25/01/19	21	Wikiloc Ruta JORRIOS ETA ARMAÑON (PR BI 120: JORRIOS IBILBIDEA)
GORBEIA	25/02/09	15	Wikiloc Ruta SARRIA-GORBEIA-MURUA

Iturria: egileek eginda